

Eskolagune

# Energitron

## ARLO/IKASGAIA:

- Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza.

## ARLO/IKASGAI ERLAZIONATUAK:

- Balio zibiko eta etikoaren ikasgaia.

## ETAPA:

- Lehen Hezkuntza (Hirugarren Zikloa)

Azkenean aurkitu zaituztet! Asteak daramatzat zuekin harremanetan jarri nahian. Energia krisiaren ondorioz gure herriko igerilekua isteko zorian dago gehien kontsumitzen duen eraikin publikoa delako, eta hori gutxi balitz, Energitron gure herrira iritsi eta maltzurkeriak egiten dabil. Gai izango al zarete klima aldaketaren superheroi gisa, zuen botereak martxan jarri eta talde lanean arituz, arazo honi aurre egiteko? Ez ahaztu energia berriztagarrien onurak eta hauen benetazko erabilerak ezagutu beharko dituzuela misio honetarako. Zuek izan zarete hautatuak, zuen zain gaude.

